



GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO JARDUNALDIA

1. ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO ESKUBIDEA
2. GIZA ELKARTASUNERAKO ESKUBIDEA
3. ENPRESAK ETA GIZA ESKUBIDEAK
4. NEKAZARIEN ESKUBIDEAK

EHU

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA.

DONOSTIA



A S T E A R T E A , A P I R I L A K 3 0

Dokumentu hau jardunaldietan parte hartu zuten pertsonen hitzaldietan oinarrituta egin da. Beraz, hemen adierazitako iritzi eta planteamenduek ez dute zertan islatu jardunaldia antolatu zuten GKEen posizionamendua, ezta ere haien finantzatzaileena

GIZA ESKUBIDEAK

DEFENDATZEKO ESKUBIDEA ETA

NAZIOARTEKO ELKARTASUNERAKO

ESKUBIDEA

Mahai-ingurua apirilaren 30ean egin zen UPV/EHUko Psikologia Fakultatean, Psikologiako Graduoko hirugarren mailako ikasleekin eginiko bi saiotan, Gatazken Analisia eta Ebazpena ikasgaiko ariketa praktiko bezala. Bi saio horietan 130 pertsona inguruk parte hartu zuten.



MAHAI-INGURUA

GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO ESKUBIDEA



GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO ESKUBIDEA



B

etty Puerto,

(psikologo soziala eta giza eskubideen defendatzailea, Kolonbiako Emakume Erbesteratu, Errefuxiatu eta Migratuen Kolektiboko kidea eta Kolonbiak egun bizi duen bake-prozesuaren markoan sortutako Biktimen Nazioarteko Foroko kidea), bere hitzaldiaren hasieran, argudio hauxe atera zuen mahai gainera: aldaketaren eta justizia sozialaren aldeko jardueretan parte hartzen duen pertsona oro giza eskubideen defendatzailea da. Hala, giza eskubideen defendatzaile diren hurbileko hainbat adibide aipatu zituen: mugimendu feminista, Hipotekak Afektatutakoen plataforma, Mediterraneoan migratzaileen bizitzak salbatzen dituztenak, e.a. Bere hitzaldian azpimarratu zuen ez dagoela Hegoalde Globalera joan beharrik giza eskubideen defendatzaileak topatzeko, eta UPV/EHUko Psikologiako Graduako 3. mailako ikasleak animatu zituen giza eskubideen defentsan inplika daitezen.

Ondoren, argi eta garbi azaldu zuen Latinoamerika eskualde hilgarria dela giza eskubideen defendatzaileentzat, are gehiago gaur egungo egoera politikoan: eskuineko eta eskuin muturreko gobernuak boterera iritsi diren honetan, herrialdeak atzerantz doaz aurreko hamarkadan lortutako eskubide eta askatasunei dagokienez. Testuinguru horretan, indarkeria zuzena erabiltzen da maiz erauzketa-eredu neoliberalari kontrajartzen zaizkion guztien aurka, dela mega-proiektuen aurka borrokatzen dutelako edota salatu egiten dutelako lurraldeek tokiko oligarkiarekin lotutako enpresa multinazionalengandik jasaten duten espoliazioa.

Mexiko, Honduras edo Brasil bezalako herrialdeetatik kanpo ere, Bettyk agerian jarri nahi izan zuen Kolonbiako defendatzaileen egoera. 2012an bake-prozesua hasi zenetik eta, bereziki, 2016ko akordioak sinatu zirenetik, barruko arerioaren dotrina nagusitu da eta horrek areagotu egin du defendatzaile guztien aurkako indarkeria (jazarpena, mehatxuak, judizializazioa eta erailketa). Testuinguru horretan, giza baliabideak urratzen jarraitzen da etengabe eta zigorgabetasuna erabatekoa da, besteak beste, komunikabideek ez dutelako gertatzen dena kontatzen, eta lurralde kolonbiarretako baliabide harrapaketaren eta lurra eta bizitza suntsitzeko proiektuaren aurka borrokan ari direnek jasaten duten indarkeria ezkutatu egiten delako. Indarkeriazko testuinguru hori bereziki gogorra da emakumeentzat, askotan beraiek direlako eskubideak defendatzeko prozesu sozialen gidariak, logika patriarkalei (herrialdearen ezaugarri soziokulturaletako bat) aurre egin behar dietenak eta indarkeria diferentziala jasaten dutenak, batik bat, sexu-indarkeriaren bitartez.

Egoera horretan, Bettyk adierazi zuen beharrezkoa dela nazioarteko elkartasun loturak estutzen jarraitzea, Ipar-Hego lankidetzatik jaiotako lidergoak ugaritzea eta sendotzea, eta Europatik zorrotz zaintzea eta salatzea multinazionalak eta lankidetzak militarizatuak paper bat dutela fenomeno paramilitarraren barruan, indar politiko-militar ekonomikoen eta paramilitarren arteko lotura funtsezkoa baita Kolonbiako gatazka ulertzeko eta gaingitzea.

Gizarte-mugimenduak Kolonbian –eta oro har Latinoamerikan– jasaten duen jazarpena gaingitzeko ezinbestekoa da sareko lana eta antolakuntza indartzea justizia sozialaren eta Giza Eskubideen alde lan egiten dute eragile zibilen artean, horretarako oinarritzat harturik hainbat mugimenduk ikasitakoa eta egin duten ibilbide historikoa, jakin baitute gaingitzen Estatuko indarkeriak eta indarkeria paraestatalak –munduaren ikuspegi neoliberalak sustatzen duen eredu ekonomiko, politiko eta soziala inposatzeko sortu zenak– ehun sozialekin hausteko egin duen ahalegina.





erónica López,

Kolonbiako Preso Politikoen Elkartasun Batzordeko kidea da, Herrien Kongresuko kide ere bai, eta Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Programaren babespean dago. Giza Baliabideen defendatzaile honek, lehenik eta behin, Kolonbiaren gaur egungo egoera azaldu zuen, nabarmenduz krisi humanitarioa eta genozidio politikoa direla testuinguru horren ezaugarri nagusiak. Giza Baliabideen defendatzaileen aurkako indarkeria-politika orokortuen sorburu da botere politiko eta ekonomikoaren, ejertzitoaren eta talde paramilitarren arteko lotura, betiere herrialdean lan egiten duten eta herrialdea espoliatzen duten enpresa multinazionalaren babes eta oniritziarekin. Testuinguru horretan, FARC-EP eta Kolonbiako Gobernuak sinatutako akordioak ez dira betetzen ari, eta bereziki azpimarratzekoa da FARC-EPetako desmobilizatuek nahiz lider sozial eta politikoez ez dutela segurtasun bermerik oposizio politikoa egiteko Kolonbian.

Erauzketa-eredua sakontzen ari den une politiko eta ekonomiko honetan, mugimenduaren jazarpena areagotu egin da, eta gero eta maizago gertatzen dira desplazamendu behartuak, desagertzeak, lider eta biztanle zibilen erailketak eta protesta sozialaren kriminalizazioa, gerra garaian bezala tratatzen delarik. Gainera, liderrak judizializatu egiten dira probarik gabeko prozesu judizialean, non sistematikoki urratzen baitira euren eskubideak; lider horietako

askok askatasuna galtzen dute behin-behinekoz, indar politiko eta judizialaren arteko lankidetzaren erruz, eta indar mediatikoaren babesarekin, zeinak epai sozialak egiten baititu oposizioa kriminalizatzeko eta estigmatizatzeko. Hori guztia gertatzen da Zuzenbide eta Gizarte-Estatuturik ez duen herrialde batean, aski frogatuta baitago Estatuko aparatu desberdinek badutela lotura paramilitarismoarekin.

Verónicak esan du mugimenduaren aurkako Genozidio Politikoaren erakusgarri direla 2016az geroztik eraildako 600dik gora pertsona, Kolonbiako gatazkaren oinarrian dauden meatzaritza, energia eta beste hainbat arlotako megaproiektuen aurka beren lurraldea, bere baliabide naturalak eta bertako komunitateak defendatu zituztelako erailak. Oso esanguratsua da nolako jazarpenak eta erailketak jasaten dituzten afrikarren ondorengoen, indigenen eta nekazarien herrietako landa-prozesuak gidatu dituzten liderrek, batez ere, hazkuntzako landareak aldatuz narkotrafikoaren indarraren aurka borrokatzen dutenek, eta paramilitarismoak desplazamendu behartuen bitartez bereganatu zituen lurrak berreskuratzeko borrokatzen dutenek.

Testuinguru horretan, Kolonbiako Gobernuak ez du inolako konpromisorik hartzen oposizio politikoaren segurtasuna bermatzeko eta ez ditu desartikulatzen herrialdeko egitura paramilitarrak, pixkanaka presentzia handiagoa hartzen eta zitalago bihurtzen ari direnak. Fenomeno paramilitarra eta enpresa multinazionalak gauzatzen dituzten proiektuekin duten lotura guztiz desagertu ezean, ezin da lortu bake-eszenatoki sostengarriak.

2

MAHAI-INGURUA

NAZIOARTEKO ELKARTASUNERAKO ESKUBIDEA



NAZIOARTEKO ELKARTASUNERAKO ESKUBIDEA





sther Domenech Ansur

kolektiboko kidea da, zeinak laguntza psikosoziala ematen baitie Kolonbiako gatazka armatuaren biktimei. Ansur erakundean uste dute gatazka armatuaren biktimentzako laguntza psikosoziala nazioarteko elkartasun tresna bat dela, ehun soziala babesteko eta berreraikitze ematen den laguntzan oinarritua.

Noiz sortzen da biktimizazio politikoa? Bada, gobernu neoliberalentzat funtsezkoa bihurtzen denean biztanleria kontrolatzea indarkeria mota desberdinak erabiliz. Hala, indarkeria zuzena eta Giza Eskubideen urratzea kontrolerako estrategiatzat hartzen dira (bai Kolonbian eta baita beste testuinguru batzuetan ere), indarkeriaren inpaktuak uhin hedakor bat sortzen baitu, ondorioak eraginez arlo pertsonalean, antolakuntzan, komunitatean eta gizartean. Horregatik, esku-hartze psikosozialek kontuan hartzen dituzte komunitatea eta beronen antolakuntza, erasoak pertsonen zuzenduak direlako eta helburutzat dutelako ehun soziala eta komunitatearen antolakuntza haustea. Zentzu horretan, nazioarteko elkartasuna tresna politiko bihurtzen da eta bertatik aldarrikatzen da nolako bizimodua, mundua eta gizartea nahi ditugun.

Nazioarteko elkartasunaren aldeko apustua bidegabekeriaren aurkako erreakzioetatik sortzen da, bidegabekerien aurrean egiten ditugun galderetatik, eta onartzen dugun unetik gatazka sakonak daudela bidegabekeria horien atzean. Gatazken sustraian beti

daude eragile armatuak baino askoz ere eragile gehiago. Horregatik, elkartasun jardunaren lehenengo lana da gatazken konplexutasuna ulertzea: eragileak eta haien arteko harremanak, eragile sozialak eta biztanleria zibila, eta gatazka barruko botere-dinamikak. Analisi horren barruan, ongi ulertu behar da errepresiozko indarkeria politikoaren jatorria ez dela agintari politikoaren edo lider paramilitarren patologia psikologiko bat, baizik eta planifikatutako errepresio-estrategia bat, bereziki diseinatzen dena indarreko eredu politiko eta ekonomikoaren oposizioa suntsitzeko.

Errepresioaren helburua da ehun soziala haustea, emantzipazioaren alde borrokan ari den biztanleria zapaltzea izua eraginez eta paralizazio egoera batera eramanez. Horrekin batera, indarkeria sinbolikoa ere erabiltzen du, zeinak “terrorista” edo “antisistema” paperetan jartzen baitu oposizioa, aldi berean erakutsiz gobernua dela segurtasunaren, egonkortasunaren eta ordenaren bermatzaile.

Izu- eta biztanleriaren kontrol-politika horien aurrean, oposizioa egiteko bermerik ez dagoenean, nazioarteko elkartasunak egin behar duen lanetako bat da gatazken konplexutasuna ulertzea eta, ondoren, ohartzea gatazka horrek nolako eragina duen pertsonengan, antolakundeetan eta komunitateetan. Horretan oinarriturik, laguntza eman ahal izango du historia kolektiboki berridazteko eta arlo komunitarioa etengabe berreraikitze.



P

eio Aierbe SOS

Arrazakeria erakundeko koordinatzailea da Gipuzkoan. Giza Eskubideen defendatzaile honen iritziz Europa gerra-egoeran dago eta diskurtso bat sortu du etsai bat eraikitzeko: etorkinak eta errefuxiatuak, europarren egonkortasuna eta ongizatea mehatxatzen dutenak. Esaten da “etorkinak direla gure arazo sozial eta ekonomikoen errudunak” diskurtso horrekin tapatzen delarik boteretsuek gaur egungo krisian duten erantzukizuna. Eta Europa gerra-egoeran dagoela diogu, migrazio-prozesuetan badaudelako heriotzak, jazarpena, bortxaketak eta torturak, batik bat afrikarrenetan. Gainera, horrek guztiak eragin handiagoa du emakumeengan, gehienek mota desberdinetako indarkeriak (besteak beste bortxaketak) jasan dituztelarik Afrika iparralderaino iristeko ibilbide luzean.

Gerra horretan, “besteak” dira biktimak; Europako gobernu eta erakundeek ezarritako kontrol- eta bazterkeria-politikak jasaten dituzten ezezagunak. Politika horiek eragina dute bertako biztanleengan ere, poliziaren kontrola eta ahalmena handitzen delako eta baldintza hobeak sortzen direlako migratzaileen zein bertakoen ustiapenean oinarritutako proiektu politiko eta ekonomikoentzat. Gerra hau urrun jaiotzen da, migratzaileak pobrezia- eta gerra-egoeretatik datozelako eta beharturik migratzen dutelako, norbere lurraldean bizitzeko giza eskubidea urratutik.

Gaur egun indar ultra-eskuindarren gorakada betean gaude EBn, biztanleriaren eskubideak betetzen direla bermatu ez duten eta eliteak lehenetsi dituzten politika erkideen ondorioz. Hala, gero eta eszenatoki okerragoa daukagu Giza Eskubideak betearazteko. Azken urteotan sentsazio kolektibo bat sortu da, sentiarazten diguna ongizatea eta segurtasuna, egonkortasuna eta enplegua mehatxatuta daudela, eta immigrazioa hartzen da horren errudun eta erantzuletzat, ilegaltasun edo terrorismo etiketak jarritz. Egiazki, etorkinek abantailak ekartzen dituzte jasotzen dituen gizartera, beren hondar alea jartzen dutelarik Europako herrialdeen hazkunde ekonomiko eta kulturalerako.

Egoera horren aurrean, bazterrean utzi behar ditugu gorroto eta beldurrezko diskurtsoak, “beste” ezezagun desberdin hori estereotipo eta aurreiritzi negatiboetan oinarrituta deskribatzen dutenak. Apustu egin behar dugu gizarteratze-, integrazio- eta berdintasun-politika eraginkorren alde, erakundeak aldatu behar ditugu politika horiek gizartean erroto daitezen, eta gizarte-ehuna sendotu behar dugu Giza Baliabideak bizitzaren oinarritzko parte direla onartuz.



OSTEGUNA, MAIATZAK 2

MAHAI-INGURUEN KONTAKETA

ENPRESAK ETA GIZA ESKUBIDEAK, ETA NEKAZARIEN ESKUBIDEAK

*Mahai-ingurua maiatzaren 2an egin zen UPV/EHUko
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean,
Antropologiako Graduoko lehen eta hirugarren mailetakoko
ikasleekin eginiko saio batean. 30 pertsona inguruk parte
hartu zuten.*



MAHAI-INGURUA

NAZIOZ GAINDIKO ENPRESAK ETA GIZA ESKUBIDEAK



NAZIOZ GAINDIKO ENPRESAK ETA GIZA ESKUBIDEAK





Julia Martí politologoa


da, UPV/EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea eta baita ere Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko (OMAL) kidea. Bere hitzaldian hizpide hartu zituen botere korporatiboarekin lotutako gaiak eta botere horrek pertsonen bizitzan eta lurraldean izan ditzakeen ondorioak. Lehenik eta behin, botere korporatiboaren elementu zentrala zein den azaldu zuen: multinazionalen, haien erreferentziazko Estatuen eta organismo multilateralen arteko lotura, hain zuzen. Indar horri esker, nazioz gaindiko erakundeek giza eskubideak urra ditzakete eta lurraldeetan sartu haietako baliabideak espoliatzeko. Eta hori guztia, erabateko zigorgabetasunarekin.

Baina, zergatik joka dezakete horrela nazioz gaindiko enpresek? Bada, Juliaren esanetan, Estatuko indar politikoek eta indar multilateralek horretarako baldintza egokiak sortu dituztelako. Krisi sistemiko batek markatutako une historikoan bizi gara: badugu sistema kapitalistaren krisia, merkantilizazioak eta gehiegizko zorpetzeak eragin duena; badugu zaintzen krisia ere, lurra eta gizakia ustatzeagatik sortua; badugu krisi ekologikoa, erauzketa-eredua gailendu zaielako gainerako eredu guztiei; badugu erreprodukzio sozialaren krisia, biztanleriaren geruza handiak pobretzen dituen eta desperekotasunak eta migrazio behartuak ugaritzen dituen; eta badugu krisi demokratikoa, non demokrazia liberalak gero eta legimititate gutxiago baitu eta autoritarismoak ugaritzen ari baitira. Egoera horretan, badirudi botere korporatiboa dela krisia gainditzea berma dezakeen bakarra eta horretarako eskaintzen du utopia teknologiko bat, gehiengo sozial handien nazioarteko emantzipazioarekin zerikusirik ez duena.

Gobernantza global korporatiboa lau ardatzen gainean egituratzen da: nazioz gaindiko enpresak, haien jatorrizko Estatuak, jasotzen dituzten enpresak eta munduko ekonomia gidatzen duten organismo multilateralak (FMI, OMC,...). Botere ekonomikoak oinarritzat dauzka ustiapena, espoliazioa, zerga-ihesa, kapital metatzea eta finantzializazioa; botere politikoak, berriz, hori guztia egin ahal izateko baldintza juridiko/politikoak sortzen ditu, bidea zabalduz Iparraldeko enpresei Hegoaldean lurreratu daitezten eta kanpo-politika enpresen zerbitzura ezarritako tresna bihurtuz. Orduan, boterea tokiz aldatzen da, Estatuarekiko loturak galtzen ditu eta asimetria juridiko bat sortzen da arlo publikoaren eta pribatuaren artean; era berean, arrazionaltasun neoliberala errotzen da gizartean, sinestarazi digutelako enpresak eta multinazionalak direla gure arazoak konpondu ditzaketen bakarrak.

Júliak botere korporatiboaren egitura horren ondorioak azaldu zituen: a) autoritarismoaren gorakada, dagoeneko antzematen dena eskuin muturreko indarren gorakadan (kasu batzuetan gobernuetan sartzea lortu dutelarik); b) lehiakortasun altua ekonomiaren desarauketa eta gehiegizko finantzializazioa nagusi diren testuinguru batean; c) oraindik Estatuak kontrolatzen dituzten sektoreak gero eta gehiago pribatizatzea; d) ongizate-estatu ereduen amaiera; e) giza eskubideen urraketak ugaritzea eta, horiekin batera, zigor-politiken bidezko errepresioaren gorakada. Ondorio horiek guztiak erabateko zigorgabetasunean ari dira gertatzen, araudia asimetrikoek bide ematen dietelako enpresei Estatuak salatzeko enpresek beraiek kontrolatzen dituzten arbitrajeko auzitegietan; aldiz, Estatuak ez daukate aukera hori.

Botere-mekanismo horren adibide bezala jar liteke Mexikoko Istmo Tehuantepec eskualdeko Korridore Eolikoa: Iberdrolak (eta harekin batera Gas Natural, Acciona edo Renovaliak ere bai) sistematikoki urratzen ditu Giza Eskubideak eta Mexikoko legea bera, ez baitie aukerarik ematen komunitateei kontsulta libre eta informatu bat egiteko. Gainera, arbitrarioki aldatu dira lurraren jabetza komunitarioa eta erabilpena, eta horrek berekin ekarri ditu gatazka komunitarioak, ehun soziala suntsitzen duen indarkeriaren gorakada, baita ere errepresioa, kriminalizazioa eta militarizazioa areagotzea eskualdean, eta bereziki kezkagarria da feminizidioa.





Lucía Bárcena Ekologistak

Martxan erakundeko aktibista da eta Transnational Institute ikerketa-erakundeko kidea. Bere hitzaldian Merkataritza Libreko Nazioarteko Itunak (MLI) hartu zituen hizpide eta, batik bat, itun horien barruan sartzen diren nazioarteko arbitrajeko auzitegiak, Estatu eta multinazionalen arteko auziak ebazteko balio dutenak eta, finean, nazioz gaindiko enpresen kontrolpean daudenak.

Merkataritza Libreko Itunak aldebiko akordioak edo akordio multilateralak izaten dira, gobernuen artean sortzen direnak eta Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) arauekin funtzionatzen dutenak. Itun horien barruan Nazioarteko Inbertsio Akordioak daude, herrialde bakoitzean inbertitzeko eskubide bereziak jasotzen dituztenak; hortxe sortzen dira arbitrajeko auzitegi bereziak eta hortxe gelditzen da agerian botere demokratikoaren eta botere korporatiboaren arteko talka, azken horren alde ebazten dena. MLlek muga-zergen arloko neurriak ezartzen dituzte zerga horiek murrizteko baina, batez ere, muga-zergekin zerikusirik ez duten neurriak hartzen dituzte “merkatuko hesi teknikoak” gainditzeko: hau da, neurri horiekin ahalbidetzen dute merkatuak irekitzea, kontratazio publikoa, jabetza intelektuala... eta horretarako enpresen aldeko aldaketak egiten dituzte legeetan, adibidez, negozioak egiteko aukera emanaz osasuna izateko eskubidearen gaintetik. Muga-zergekin zerikusirik ez duten arau horiek, “merkataritza librea” sustatzeko direnak, horiexek dira MLlen ardatza.

“Hesi teknikoak gainditzea” esaten dioten hori eskubide galera besterik ez da, inbertitzaileak babesteko mekanismoak, horrela bermatzeko harrerako herrialdeek atzerriko inbertsioa jasoko dutela. Nazioarteko arbitrajeko auzitegi horiek inbertitzaileen segurtasuna bermatzen dute, argudiatuz Estatuko eta nazioarteko legeria “ez direla nahikoa” inbertitzaileen segurtasuna bermatzeko. Orduan, salbuespen-egoera juridiko bat sortzen da haientzat.


Lucíaren esanetan, MLlek badituzte hainbat xedapen arriskutsu. Lehenik eta behin, Lankidetzak (des) arautzailea daukagu, hau da, arauak harmonizatzen dituen muga-zergek suposatzen dituzten hesiak altxatzeko, gobernuak euren gaitasun legegilea kentzen dieten organo espezifikoak bitartez. Hori agerian gelditu da Ekonomia eta Merkataritzaren Akordio Integralaren (CETA) negoziazioan: EBk ezabatu egin du prozedura oso kutsakorren bitartez (adibidez Fracking-a) erauzitako erregai fosilak inportatzea debekatzen zuen zuzentaraua. Bigarrenik, gorago aipatutako nazioarteko arbitrajea (ISDS). Estatuak salatu dituzten hainbat multinazionalak 8.000.000 milioi dolarretik gorako isunak kobratzea lortu dute; esate baterako, Philip Morrisek Uruguay salatu zuen tabakoak osasunean dauzkan ondorio kaltegarriez ohartarazteagatik, herrialdeak hezkuntzarako duen aurrekontua adina eskatzen ziolarik. Multinazionalak ISDS horien aurrean aurkeztzen dituzten salaketek dirauten bitartean, Estatuak gaitasun legegilerik gabe gelditzen dira eta hori eraso zuzena da Estatuaren burujabetzaren aurka. Gainera, ISDS horiek hiru arbitro izaten dituzte eta 50 arbitro bakarrik daude mundu osoan.

Espainia da munduan salaketa gehien dauzkan herrialdeetako bat; salaketa horiek aurrera egiten badute, 8.000 milioi euro inguru ordaindu beharko lituzke. Bestalde, Espainiako 35 enpresak baliatu dituzte ISDS horiek (Repsol, Aguas de BCN, Fenosa, Telefónica,...).

2

MAHAI-INGURUA

LURRAREN ETA NEKAZARIEN ESKUBIDEEN DEFENTSA



LURRAREN ETA NEKAZARIEN ESKUBIDEEN DEFENTSA





Cauca

Iparaldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarteko (ACONC) liderra da eta Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Eusko Jaurlaritzaren Programaren babespean dago. Cauca iparraldean 159.000 biztanle bizi dira 10 udalerritan banatutako 209 eskualdetan. Afrikarren ondorengoak bizi dira eremu horietan (indigenak eta nekazariak ere bai) eta denboran iraun duten antzinako jardunak dituzte ogibide. Testuinguru horretan, Kontseilu Komunitarioak dira eskualde horietako gobernuak (halaxe dago jasota 1991ko Konstituzioan) eta ACONC elkarteak bizitza eta lurraldea defendatzen ditu, indarkeria gaitzetsiz.

Kolonbia osoan gertatzen den bezala, lurraren jabetza da Cauca Iparraldeko gatazkaren muina. 1998 eta 2003 artean paramilitarismoa ugaritzearekin batera, lur asko kendu zitzaizkien biztanleei eta estigmatizatu egin zituzten gainera, gatazkako eragile armatuetako kide izatea leporatuz. Azkenean, lurrak multinazional eta lurjabe handien eskuetan gelditu ziren.

1993an PAI onartu zenetik, enpresek eskubidea dute lurralde horietan ezartzeko 10 urtez eta bertako baliabideak ustiatzeko eta espoliatzeko, zergarik ordaindu gabe, enplegurik sortu gabe, eta Kolonbiako legerian nahiz Giza Eskubideetan jasotako eskubide guztiak urratuz. Multinazionalen kontrolik gabeko etorrerak inpaktu handia izan du ingurumenean, berekin ekarri ditu pobrezia handitzea eta biztanleria

desplazatzea Cali hiriko pobrezia-gerrikoetara; Cauca Iparraldeko biztanleek atzean utzi behar izan dituzte kultura eta lurraldea defendatzen zuten antzinako jardunak eta “zementuaren munstroak” jan ditu, hiri handiek alegia, non ez baitaukate aukerarik sozioekonomikoki integratzeko.

Enpresa multinazionalak Cauca Iparraldean sartzeak eragin handia izan du osasunean ere, lur gaineko meatzaritzak lurra eta baliabide hidrikoak kutsatu dituelako batez ere. Gainera, lur gaineko meatzaritza jardun hori guztiz ilegala da (prozedura legalak bete gabe emandako tituluekin egiten baita) eta kriminala ere bai, goi-mailako agintari militarrekin lan egiten duen eskualdeko paramilitarismoa finantzatzen baitu.

Kolonbiako gatazkan parte hartu duten eragile armatu guztiak daude Cauca Iparraldean (paramilitarrak, ejertzitza, ELN eta desmobilizatu gabeko FARCen 6. frontea). Baina herri-batasunak apustu komunitario irmoa egin du bakearen alde eta horregatik sortu du Cauca Iparraldeko Etnia eta Kultura arteko Kontseilua; bertan bildu dira afrikarren ondorengoak, nekazariak eta indigenak, “desberdintasunetik abiatuta” bizitzarako planak eraikitzeko, indarkeriak suntsitu dituen ehunak berreraikitzeko elkarriketarekin eta aniztasunarekin.





otzone Sestorain

eta Etxaldeko Emakumeak erakundeetako kide da. Bere hitzaldian argi utzi zuen luraren eta lurraldearen arazoak globalak direla eta eragina dutela Iparreko zein Hegoko landa-biztanleengan: elikadura-burujabetza erabat galdu da eta gailendu egin zaio nekazaritza industrialeko eredu, elikagaien produkzio eta banaketarako nazioz gaindiko enpresen botere korporatiboan eta MMAren araudian eta MLletan oinarritzen dena.

Eredu ekonomiko eta agroindustrial horren ondorio nagusietako bat da lurra kaltetzen duela eta, batez ere, nekazaritzarako egokia den lurra hausten duela azpiegiturak eraikiz, meak erauziz edo nekazaritza industrialeko megaproiektuak ezarriz. Guztiek suntsitu egiten dute hazkuntzarako egokia den lurra. Bestalde, Iparrean landa-biztanleriaren desplazamendua ari da gertatzen, baina indarkeria zuzenik erabili gabe; aldiz, bestelako mekanismo “demokratikoak” erabiltzen dira, hau da, ekoizle txikiak merkatuko aukeretatik kanporatzen dituen azpiegitura legal eta ekonomikoa, lurrak metatzeko baldintza egokiak sortuz nekazaritza sektoreko multinazionalentzat. Horren erakusgarri, ekoizle txikiak nekazaritzako negozioaren %50 izatetik %3 izatera pasa dira Espainiar Estatuan 30 urteko epean.

Gainera, eredu agroindustrialak areagotu egiten ditu desertifikazioa, luraren eta baliabide hidrikoen kutsadura, deforestazioa, negutegi efektua eragiten duten gasen isuriak eta bioaniztasunaren galera. Eredu horren barnean, nekazariak ez dute janaria lantzen, baizik eta mundu mailako merkaturako commodity-ak (soia, artoa, palmondo-olioa...). Horrek berekin dakar produkzioaren eta manufakturaeren arteko bereizketa eta elikaduraren kalitatea murriztea.

Elikaduraren merkatu ustiatu eta prekarizatua 5 multinazionalen artean kontrolatzen den honetan, proposatu du osorik eraldatu behar dela negozio industrialaren eredu eta baita kontsumoa ere: “lehenetsi ditzagun hurbiltasunean oinarritutako sistema eta pertsonen eta ingurumenaren zaintzan oinarritutako ekonomia”. Latifundista global bihurtu diren nekazaritza eta elikadura sektoreko multinazionalak kapitala eta boterea metatzeak berekin dakarrelako nekazaritza tradizional, herrikoi edo familiarra sistematikoki desagertzea. Txanpon beraren aurkia eta ifrentzua.